



BARREN
TOKIKOM

Hildako artean



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

943 744 457

%35 a

arteko deskontuak!!
**KOLTZOIAREN
HILABETEA**



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



Jon Aranao
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralarera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Inopiniologi zerbitzua daukagu.
Dena ordua hartzeko.*



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112

barre.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

MALLARI-ERREVA-ENRI-SORALUZI-RENOBIO-DEBA-MITIBAR



IDURRE IRIONDO
ARKITEKTURA

PROIEKTUAK

- ✓ Atariak
- ✓ Fatxadak
- ✓ Etxebizitzak
- ✓ Lokalak

TXOSTENAK

- ✓ Erreforma informeak
- ✓ EITak (ITE)
- ✓ EEZak (CEE)

TLF: 618854121

MAIL: idurreiriondo@outlook.com

**AURTENGO IKASTURTEAN ERE,
BANATOR !!!**



Barixakua, irailak 28,
17:30ean
MAALAKO PARKEAN

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Eman izena!

Elgoibarko hamaikakoaren 11 arrazoi



Irene Makazaga, Asier Rodriguez, Maialen Salaberria, Mayi Mujika, Ander Mujika, Mateo Cantu, Nagore Irureta, Manu Rey, Joxean Gomez, Rosa Salegi eta Maite Unzueta.

Joan zen ostegunean aurkeztu zuen Elgoibarko Euskaraldia Taldeak hamaikakoa, Euskaraldia ariketaren enbaxadore izango diren hamaika lagun taldea, eta bina galdera egin dizkiegu. Bakoitzak esandakoaren entresaka txiki bat ekarri dugu hona.

Zergatik eman duzu izena Euskaraldian?

ASIER RODRIGUEZ
(21 urte, ikaslea)

Egunerokoan euskara erabiltzen dutenek niri euskaraz hitz egitea nahi dudalako eta Elgoibarren euskararen erabilera sustatzeko.

MANU REY
(52 urte, sukaldaria)

Hemen jaioa izanda, eskerrak eman nahi dizkiodalako lan bila Galiziatik etorri ziren gurasoak hartu zituen herriari, baina batez ere, nire emazte eta alabagatik. Eta baita, euskara asko maite dudalako.

ANDER MUJIKA
(33 urte, musikaria)

Euskararen alde egiteko aukera bikaina delako. Ariketa praktikoa delako; teoriatik praktikara pasatu eta zuzenean eragingo digun ariketa bat izateak asko erakarri nauelako.

MAIALEN SALABERRIA
(27 urte, irakaslea)

Batzuetan euskaraz dakitenekin ere gazteleraz egiteko joera daukadalako eta Euskaraldia ariketa aproposa iruditu zaidalako ohitura horiek aldatzeko.

MAITE UNZUETA
(66 urte, jubilatua)

Niregana jo zutenean ariketa praktikoa polita zela iruditu zitzaidan eta "Zergatik ez?" esan nion neure buruari.

Zer rol aukeratu duzu? Zergatik?

MAYI MUJIKA
(30 urte, hezitzailea)

Ahobizi izango naiz, egunerokoan euskaraz aritzen naizen arren, euskaraz ondo moldatzen ez direnekin ari naizenean segituan jotzen dudalako gaztelerara, eta aldatu nahi dudalako hori.

MATTEO CANTU
(41 urte, ingeniaria)

Belarriprest izan nahi dut, besteei euskaraz hitz egiteko aukera emateko. Según el tema y el momento contestaré en castellano porque me sentiré más cómodo, pero eso no quiere decir que mi interlocutor tenga que cambiar de idioma.

IRENE MAKAZAGA
(18 urte, ikaslea)

Belarriprest izango naiz, niri euskaraz egitea nahi dudalako, eta jendeak rol hau euskaldun berriekin lotzen duela iruditzen zaidalako, eta hori guztiz okerra delako. Bi rolak dira garrantzitsusak.

GOXEAN GOMEZ
(52 urte, Udal teknikaria)

Belarriprest izango naiz, mugitzen naizen esparruetan eta nire eguneroko bizimoduan ditudan harremanetan erosoago ikusten dudalako neure burua rol horretan.

ROSA SALEGI
(58 urte, gaztagilea)

Ahobizi izango naiz, ingurukoei beti euskaraz egiten diedalako eta ahalegindu nahi dudalako ezagutzen ez ditudanekin ere euskaraz egiten.

NAGORE IRURETA
(44 urte, proiektu kudeatzailea)

Ahobizi izaten saiatzen naiz egunerokoan; baina gustatuko litzaidake, euskaraz hitz egiteko ahalmena duenak niri euskaraz hitz egitea. Horretarako aukeratu dut Belarriprest izatea.

HARRI & IRRI

Shhh...



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Irtzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpilaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UOLA
KLUBA

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2000

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Kalamua Guraso Elkartek eskerrak eman nahi dizkizue Elgoibar 2 Erroberatan ekimenean parte hartu zenuten guztioi. Herrian zehar bizikletaren erabilera sustatzeko aukera izan genuen herriko hainbat familiak giro ederrean.

Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu, Usoa tabernari, Txarriduna hotelari, Baltasar elkarteari, Goki erreformaki, Elgoibarko txirindulari taldeari, Nava inprimategiari eta nola ez, laguntzera etorri ziren boluntario guztiei: eskolako guraso, irakasle, guraso ohi eta aiton-amona guztiei. Zuek gabe ez litzateke posible izango horrelako ekintzak antolatzea. Bihotz-bihotzez mila esker, beti hor egoteagatik!

Kalamua Guraso Elkartea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzendutako mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



***Bart arratsean Julianekin
pentsamentutan nenguan,
une batean iruditu zait
zegoela gure onduan,
leial eta jator, isil-isilik
beti izan zen moduan.***

***Zer leku gutxi behar zuen hark
gurekin zegoen orduan
ta falta zaigun garaian berriz
zer hutsune utzi duan.***

Zure lagunek, bihotzez.

Julian Juaristi Soraluze

"Artaso"

2018ko irailaren 19an hil zen,
66 urte zituela.



Errosario kaleko sutea dela eta 11 familia beren etxeetatik kanpo daude, eta segurtasuna bermatzeko, kalea itxita mantenduko dute

Sutea piztu zen larunbat goizean Errosario kaleko 4. zenbakiko etxebizitza batean eta arrisku oneak bizi izan ziren eraikin zaharrak direlako Errosariokoak eta elkarrengandik oso hurbil daudelako. Sua etxeko logela batean piztu zela esan zion BARRRENI bizilagunetako batek eta familia bereko hiru lagun zeudela barruan. Eraikineko bizilagun batek eta kaletik laguntzera joandako beste batek atera zituzten. Dena dela, zorionez inork ez zuen minik hartu, azkar ibili zirelako.

Suak erabat hondatu zituen 4. zenbakiko hiru etxebizitza eta bai suak berak eta baita sua itzaltzeko erabilitako materialek kalteak eragin zituzten ondoko etxeetan ere. 6. zenbakiko hiru etxebizitzatako eta Kalegoen plazako 5. zenbakiko bostetako bizilagunak beharrezko gauzen bila baino ez dira sartu beren etxeetara eta oraingoz ezingo dira euren etxeetara itzuli segurtasuna bermatuta egon arte. Hortaz,

11 familia beren etxeetatik kanpo geratu dira, eta horietatik hiruk eskatu diete laguntza Udalari.

Alkateak esan duenez, suak eragindako kalteak neurtzeko txosten teknikoa egin du Udal arkitektoak, eta gomendagarriena kiskalitako eraikinetik hondakinak kentzea dela ondorioztatu du, suak eragindako egitura-kalteak argiago ikusi ahal izateko". Erabakia, baina, etxejabeena eta aseguruena izango dela esan du alkateak. "Dena dela, Udalari dagokio segurtasuna bermatzea eta lanak ahal bezain laster egitea eskatuko dugu, bizikidetzaren mesedetan", gaineratu du.

Bien bitartean kalea itxita mantentzea erabaki du Udalak, kalera teilak edo antzerako beste objektu batzuk jausteko arriskua dagoelako. Inguruko taberna eta komertzioetan ere izan du eragina suteak. Jai Alai tabernak, esaterako, itxita jarraitzen zuen asteazkenean.



Gerra Zibilean hildakoak omendu zituzten asteburuan



36ko gerran hildakoak oroitzeko asteburua izan zen joandakoa Elgoibarren. Larunbatean frankistek hildako elgoibartarrak omendu zituzten Olasoko kolunbarioan, eta senide eta herritarrez gain, Mauxitxa txarangak eta Haritz dantza taldeko dantzariak ere parte hartu zuten ekitaldian. Igandean, berriz, Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan hildako gudariak izan zituzten gogoan. Bi ekitaldietan lore-eskaintzak egin zituzten eta Eusko Gudariak kantatu. Era berean, Gipuzkoako CNT sindikatuak mendi martxa egin zuen domekan Kalamua ingurura, gerran egon ziren lubaki eta bideak ezagutzera.

San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastia auzoan



Elgoibarko baserri auzoetako jaietan azkenak dira San Migel-Aiastiakoak eta asteburu honetan ospatuko dituzte auzotarrek eta gerturazten direnek. Borja Uzuriagaren oroimenez Haritz Dantza Taldeak ekitaldia egingo du ostiral gauean eta ondoren gazteen afaria izango da. Jatorduek izango dute jaietan beren tokia, izan ere, larunbatean, San Migel Egunean, bazkaria eta bertso afaria egingo dituzte, azken hau, Jone Uria eta Nerea Ibartzabal bertsolariekin. Igandean ere bazkariaren bueltan ez da jai girorik faltako.

Trikitixa doinuek jantziko dute jaietan Aiastia: Ostiralean, Fan&go taldeak, larunbatean, Saioa eta Maialen trikitilariak eta Obaneuke taldeak, eta igandean, Baltzolak eta Andonegik. Lehia girorik ere ez da faltako sanmigeletan. Bolo txapelketa, XII. Artzain Txakur Txapelketa, Euskal Herriko arraza libreko finala eta idi-demak egingo dituzte; honetan Oliden, Zubiondo eta Isidro erretegia lehiatuko dira. Auzotarren umoreak ere girotuko dituzte jaiak.

Digital Manufacturing master duala aurkeztu du IMHk



Ostiralean aurkeztu zuten IMHn Digital Manufacturing unibertsitate master duala. Masterrak zabaldu egin du IMHk sare industrialarentzat ematen duen eskaintza. Ingaruko puntako enprekin elkarlanean prestatu dute eta ikasleak euskal enpresetan jardungo dira prestakuntza dualean, aurkezpenean esan zuten bezala teknologiak ezezik norbanakoen lanak ere garrantzia duelako lantokietan.

Tertuliak programarako izen-ematea zabalik

Euskaraz berba egin nahi baina erraztasunik edo aukerarik ez daukatenentzako Tertuliak programan izena emateko epea zabalik dago. Lauzpabost laguneko taldeak osatzeko dituzte eta taldea dinamizatzen euskaraz ondo dakien lagun bat egongo da astero egingo duten ordubeteko tertulia-saioa dago. Izena emateko eta informazioa jasotzeko helbide honetan kontsulta egin <https://labur.eus/tertuliak> edo Elgoibarko Izzarrara, AEK euskaltegira edo Udal Euskaltegira jo behar da.

San Rokeko zozketak baditu irabazleak

San Roke jaietan urtero egiten dute zozketa eta aurtengoak jadanik baditu irabazleak. Begoña Lenizek eskuratu du hainbat janari eta edarirekin betetako orgatilla eta Aitor Fernandez de Jauregik, berriz, telebista.

Hasi dira Basarten skate parkea eraikitzen

Basarte auzoko berdegune batean eraikiko dute skate parke berria eta jadanik hasi dira lanean. Hormigoizkoa izango da, eta 280 metro koadro izango ditu. 1,10 eta 1,30 metro bitarteko sako-neradun bowl edo bainera eta askotariko ibilbide eta jauziak egiteko bestelako elementuak ipiniko dituzte. Sektorean eskarmentua duen Sopelako ZUT Skateparks enpresak diseinatu du, eta Udalak, gutxira, 48.200 euro bideratuko ditu lanetara. Azarorako skateparka bukatuta egotea aurreikusitako dute. Udalaren helburretariko bat da, skatepark honekin, gazteen artean kirol eta aisiarako aukerak sustatzea.



“Hainbeste autopsiaren ondoren ere ez dut heriotzarekiko sentsibilitatea galdu”

Nola bizi, hala hil dio esaerak, baina Patricia Rodriguez auzi mediku elgoibartarrak bigarren zatiari bakarrik erreparatzen dio bere egunerokoan. Gipuzkoan 15 auzi mediku daude, batzuk orokorrak eta besteak adituak, eta patologia forentsean aditua da bera. Giza hilketak (suizidioak, istripuak edo giza-hilketak) direnean egiten ditu batik bat autopsiak. Telesailetan ikusten diren hildakoen azterketak modu bizian bizi ditu Patricia Rodriguezek.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

▶ PATRICIA RODRIGUEZ AUZI MEDIKUA

♦ Zuk nola erabaki zenuen mediku forentse izatea?

Betidanik gustatu izan zaizkit heriotzaren arrazoiak edo ikerketa kriminalak ikerztea. Medikuntza ikasketak oraindik bukatu gabe nituenean, harremanetan jarri nintzen zenbait aditurekin forentse izateko zer egin behar zen jakiteko. Karrera lege eta auzitegiko medikuntza ikasgaia eman gabe geunden arren, udan, praktika boluntarioak egin nituen Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeetan. Ikasgaia azken ikasturtean egin nuen eta ordurako erabakia neukan forentse izatea. Ingurukoek sorpresaz hartu zuten erabakia. Amak ere esan zidan ea nolatan lan egin behar nuen hildakoekin, horrenbeste ikasi ondoren.

♦ Kanpoko ikerketen berri jakiten da batzuetan, baina forentse baten eguneroko jarduna nolako da epaitegiko zerbitzuan?

Forentseak bi arlotan banatzen gara: klinikoak: kontsultak pasatzen dituztenak dira, bizidunekin lan egiten dutenak, auto istripuak, erasoak... jasan dituztenekin; eta patologikoak, autopsiak egiten ditugunak. Gorpuen azterketa egiten dugu kanpoaldetik lesiorik baduen ala ez ikusteko eta gero barrutik. Hiru barrunbe aztertzen ditugu: garuna, toraxa eta sabela. Organoen lesioak ikusten ditugu jakiteko heriotzaren zergatia zein den, edo zergatia argi dagoenean berreraiketan la-

guntzeko. Adibidez, buruan tiro bat baldin badauka badakigu heriotzaren arrazoa, baina jakin behar dugu tiroa zein distantziara egin den, berak egin duen edo beste batek... Horretarako laginak hartzen ditugu eta behin autopsia eginda koan senideek nahi dutena egin dezakete gorpu horrekin. Guk hildako bakoitzeko txosten bat baino gehiago egiten ditugu eta azterketan ikusi duguna jasotzen dugu horietan: heriotza naturala edo indarkeriazkoa izan den, indarkeriazkoa izanez gero istripua, suizidioa edo giza-hilketa izan den, eta gero heriotzaren arrazoiak zein diren.

♦ Zu alde patologikoan aritzen zara, batik bat autopsiak egiten dituzu. Nola-koak dira horiek?

Legeak esaten du autopsia judizialak egin behar direla heriotzak indarkeriazkoak direnean (suizidioak, istripuak edo

giza-hilketak). Horiez gain, batbateko heriotzak, aurrekari medikorik izan ezean, judizializatu egiten dira eta guk ikertzen ditugu. Esaterako, inolako gaixotasunik ez duen 25 urteko pertsona bat tupustean hiltzen bada futbolearen ari dela autopsia egin behar izaten zaio. Urtean batez beste 240 autopsia egiten ditugu. Patologo bat beti egon behar da guardian eta Gipuzkoan hiru egoten gara, txandaka.

♦ Egin zenuen lehen autopsia nola gogoratzen duzu?

2005ean hasi nintzen lanean Madrilan eta autopsia bera ez dut gogoan, baina bai hildakoa; toxikomano bat zen. Gogoan dut, hori bai, karrerako anatomia patologikoa ikasgaietan, praktiketan ikusi genuen lehen autopsia. Iritsi ginenean burua zabalik zeukan eta sentimendu arroak eragin zizkidan. Bestalde, hasierako autopsietan beti egoten nintzen urduri.

♦ Gorpuren batean aurkitu duzu ezer arrarorik?

Aurkitu izan ditugu droga-bolaka eta baita itxitako preserbatibo bat ere pertsona baten esofagoan. Itxira zegoenez, suposatu genuen droga izango zuela barruan. Bestalde, arraroa ez den arren gertatu izan zaigu hildako pertsona haurdun zegoela ikustea, etxekeok jakin ez arren.

♦ Hainbeste autopsiaren ondoren sentsibilitatea galtzen da?

Nik ez dut galdu. Autopsia egiten ari garenean hildakoarekiko errespetua iza-

“Hildakoarekiko errespetua izateaz gain, senideekin hitz egiteko sentsibilitate berezia izan behar da”

ten da, baina sentsibilitate berezi bat behar da senideekin hitz egiteko ere, beren bizitzako momenturik txarrenetarik baten parte baikara. Informazioa emate-agatik ikerketa oztopa dezakegun kasuetan ez dugu egiten, baina gainontzean askotan egoten gara senideekin. Gugana etortzen dira eta heriotzaren arrazoiaz gain beste galdera asko ere egiten dizkigute, eta eskertzen dute gurekin egotea. Esaterako, bere buruaz beste egin dutenen kasuan askotan senideek galdetzen dute sufritu duen ala ez. Horretarako autopsia egin behar da, eta nola hil den jakin heriotza guztiak ez baitira azkarrak izaten. Galdera guztiengatik ez daukagu erantzunik, baina saiatzen gara erantzunak ematen, ahal dugunetan. Gu ez gara ikerketa kontuetan sartzen, baina osasun kontuen berri zuzenean ematen dugu: hildakoak zituen gaixotasuak, biopsietan zer ikusi dugun, toxikoak zituen ala ez... Gainera, askotan epaileak ez daki hori azaltzen, oso teknikoa delako eta guk txostenean baino argiago azaltzen dugu.

◆ **Eta heriotzarekiko sentsibilitatea galetzen da?**

Nire ikuspuntua aldatuta dago eta konturatu naiz pentsatzen nuena baino gertuago dagoela heriotza. Medikuntzan dihardugunok edo gaixoeekin lan egiten dugunok espero dezakegun zerbait da heriotza. Hildakoekiko antzekotasunak ikusiz gero, adinagatik-edo, kezka handiagoa izaten da.

◆ **Zein teknika baliatzen dituzue autopsietarako?**

Gorpua zabaltzeko teknikak orain dela urte pila batekoak dira eta gaur egun ere horiek erabiltzen dira. Aldatu dira autopsietan egin daitezkeen froga osagarriak: genetikoak, hatz aztarnen azterketa, toxikologikoak, mikrobiologikoak... Gorpua zabaldutakoan errai guztien biopsiak hartzen ditugu. Organu batzuk osorik hartzen dira, adibidez bihotza, eta gibeletik edo biriketatik pusketa batzuk hartzen dira. Horiek formoan mantentzen ditugu eta gero mikroskopioan ikusi. Biopsietatik bihotza aztertuz jakin dezakegu infartu bat izan



“Hemen autopsiak ez dira telesailetan bezala bi-hiru egunetan amaitzen, hilabeteetan luzatzen dira”

duen ala ez, transmititu daitekeen gaixotasuna daukan ala ez... Jende gaztea denean eta anai-arrebak dituztenean transmiti daitekeen bihotzeko gaixotasun bat baldin badauka senideak kardiologora joan behar dira aztertzeraz. Odol eta gernu laginak ere hartzen ditugu analisi toxikologikoak egiteko eta jakiteko ea toxikoen eraginpean dauden. Esaterako droga heriotzan eragina duen ala ez. Horrez gain, argazki pila bat ateratzen dira hil den tokian eta autopsia

“Ezagun baten autopsia egiteak mugitzen du barrua, beraz, ez nuke egingo gertuko batena”

egiterakoan, eta autopsia guztiak grabatzen ditugu, gero beste peritu batek aztertu nahiko balitu ere.

♦ Autopsiak filmetan eta telebistan gero eta gehiago ikusten dira. Antzekotasunik badute zuen eguneroko lanarekin?

Askotan telesailetan azaltzen den eredu amerikarrak, adibidez CSIk, nahasmena eragiten du. Han badirudi forentsea poliziako kide dela eta gu independenteak gara, poliziarekin harremana izan arren. Autopsiak han bezala egiten ditugu, hala ere, telesailetan bi-hiru egunetan badakite zein den hiltzailea eta froga guztien emaitzak dauzkate. Hemen frogak hilabeteetan luzatzen dira. Biopsiak guk aztertzen ditugu gure erakundean eta 7-10 egunetan badauzkagu emaitzak, baina Madrilen nengoenen laborategi batzuetara bidaltzen zituzten eta 10-12 hilabete itxaron behar izaten zen gero.

♦ Telesailetan entzuten dira hildakoari buruzko lekuz kanpoko komentarioak (alderdi fisikoa, tatuajeak, arropa...). Zuen kasuan horrelakoak egiten dituzue?

Mespretuzko komentarioak ez, noski. Aipatu genezake tatuaje edo arropa bati buruzko zerbaitek badirelako identifikatze gabe etortzen diren hildakoak eta identifikatzeko baliagarria izan daitezkeelako. Adibidez, orain dela gutxi bat urkatuta agertu zen eta ez dakigu nor den, ez daukalako dokumentaziorik eta inork ez duela salatu. Bestalde, gerta daiteke norbait bere etxean hiltzea, baina hilabeteetara topatzea gorpua eta horregatik ezin izatea nor den jakin.

♦ Horrelako telesaielak erakartzen dute jendea lan honetara?

Ikasleei galdetzen diet lehen egunetan ea norbaitek forentse izateko asmorik daukan eta ez dut baiezkorik jasotzen. Ni izan naiz gure erakundera iristen azkena, baina aurrean oposaketa neska batek gauditu du eta datorren urtean hasiko da gurekin. Hark ikasle zenean galdetu zidan gure lanari buruz eta autopsiaren bat ikusteko baimena eskatu ere bai. Baina azken 4-5 urteetan bakarra izan da.

♦ Kasu batzuetan autopsiak egin aurretik susmatuko da zergatik hil den, ezta?

Gehienetan bai, baina izaten dira sorpresak. Adibidez, drogomenpekotasuna duen pertsona bat zerbaite kontsumitu delako hil dela pentsatzen dute sarri eta gertatu izan da autopsia, toxikorik ez topatzea, baina bai biopsietan ezagutzen ez zuten gaixotasunen bat. Horregatik ikerketa osoa egiten dugu.

♦ Komunikabideetan gehien ateratzen direnak giza-hilketak dira. Horrek eragiten du zuen lanean?

Nire kasuan ez. Guk sekula ez diegu komunikabideei informaziorik ematen, baina kasu berezi batzuetan prentsa-bulegotik bai. Guk autopsia baten emaitzak epaileari zuzentzen dizkiogu. Gero gerta daitekeke informazio hori beste tokiren batetik zabaltzea, baina guk ez dugu jakiten nondik.

♦ Gertuko edo ezagunen baten autopsiarik egin duzu?

Tokatu zait ezagunen baten autopsia egitea, baina ez gertuko norbaitena, lagun edo senideena. Hildakoa ezaguna ba beti mugitzen du zerbaite barruan, baina ez da gertukoekin bezala. Gertuko norbait balitz, eskatuko nuke beste lankide batek egitea.

♦ Familiak autopsiak atzera botatzen dituzte ala gero eta errazago ematen dute baimena?

Autopsia judizialak, guk egiten ditugunak, epaileak agintzen ditu eta familiak ezin dezake ezer esan. Baimena beharrezkoa da klinikoetarako, ospitaletan egiten direnentzat.

♦ Kasu batzuetan senideek ez dute onartzen zuek esandako heriotza arrazoa?

Norbait bere buruaz beste egin badu, zaila izaten da. Agian heriotzaren arrazoa ulertzen duten, baina zergatia ez. Auto istripu baten ondorioz edo altuera handi batetik erori delako izandako lesioengatik hil bada, ez da erraza interpretatzea istripua edo suizidioa izan den. Batzutan badaude ezberdintzeko modu zientifikoak, baina beste batzuetan ez. Esaterako, norbait hondartzan hilda agertzen bada eta ez badakigu uretarako sarrera puntua non izan den ezin dugu jakin nahita sartu den ala istripu bat izan den. Aldiz, norbait zubi batetik erorita hiltzen bada, eta zubi hark altuera jakin bateko hesi bat badu, arrazoa garbiagoa da, nahita pasatzen ez bada ez dagoelako handik erortzerik. Zubikoa bezalako kasuetan nola gertatu den lekukoek argitzen dute. Gorpua altxatzera joaten garenerako poliziak jasoa izaten du informazioa eta gero epaileak hartzen die deklarazioa informazioa osatzeko. Guk, beharrezko izanez gero, epaileari eskatzen diogu.

Gorpu altxatzeko momentuko eszena ere aztertu egin behar da, baina gorpua askoz baldintza hobeetan aztertuko dugu gure zerbitzura iristen denean. Gorpu altxatzeko unean jende asko egoten da inguruan eta nik lana berdin egingo nuke, baina hildakoarekiko edo bere senideekiko errespetuz ez zait ondo iruditzen han egitea. Horrelakoetan aldentzeko eskatzen diegu eta gu ere esaltzen saiatzen gara. Zarautzen uretan hilda agertu zen urte eta erdiko ume baten kasua aztertzea egokitu zitzaidan. Prentsan asko agertu zen, eta horrelakoetan zaila da saihestea.

♦ Pentsatu al duzu zer nahi duzun egitea zure gorpuekin hiltzen zarenean?

Heriotzaren inguruan gogoeta egin dut, baina nire buruarekiko ez dut erabakirik hartu. Beraz, erabaki aurretik hiltzen banaiz ingurukoek erabaki beharko dute zer egin. Ikasleei ere galdetu diet ea erabakita duten eta 20tik hiruk bakarrik erantzun didate baietz.

Txikibarren

Zergatik egiten digute hortzek kriskitin hotzak gaudenean?



Iratxe Mazariegos
(Mendaro, 7 urte)

Hotzez nagoenean normalean sudur-punta hozten zait neri beti lehenengo eta gero eskuak-eta. Hortzen kontu hori ez dakit. Igual da buruan sentitzen dugulako hotz gehien, estali gabe eramaten dugulako.

Luken Zulaika
(Mendaro, 7 urte)

Hotza -eta katarro asko ere bai- ahotik sartzzen direlako, eta hortzak ahoan zintzilik dardenez dardarka hasten garenean normala delako ta-ta-ta-ta hastea. Hotzik gabe ere mugitzen zazkit niri orain. Ostegunean jausi zitzaidan lehenengo eta ez zuen hotzik egin.



Zugatz Iraolagoitia
(Mendaro, 7 urte)

Ba zeuk esan duzu: hotza izaten dugulako eta hortzak ere hoztu egiten direlako! Baina neri ez zait pasatzen zuk esaten duzun hori, nik ez dudalako hotzik izaten. Batzuk azkar hozten dira, baina nik bero gehiago izaten dut hotza baino.

Zeinek agintzen du munduan?

Maia Soto
(Mendaro 7 urte)

Munduan ez dakit, oso handia delako. Agintariak agintzen dute leku guztietan, baina mundukoa ez dakit zein den. Galdera zaila da hori. Marrazki bizidunetan herri bakoitzeko agintariak agintzen du, eta bestela ere bai uste dut.



Lizar Ezenarro
(Elgoibar, 7 urte)

Inork ez. Horregatik dago dagoen nahastea munduan, inork ez duelako ganoraz agintzen. Inork ez du inon agintzen. Etxean ere gurasoek agintzen dute orain, baina gero, handitzen garenean, geuk aginduko dugu eta gero beste batzuek.



Maite Marquez
(Mendaro, 7 urte)

Munduan? Jainkoak? Bai, nik uste dut Jainkoak agintzen duela munduan. Nik neuk ez diot sekula entzun eta ezin diot kasurik egin. Entzungo banu ez dakit zer egingo nukeen. Esaten duenaren arabera pentsatuko nuke zer egin.

Jakes Goikoetxea
(biloba)

Maria Rosario Azpitarte
(amona)

Zerbait berria egitekotan piszinak eraikiko nituzke, baina Mendaron pozik bizi naiz ni.

Mendaroko alkate bazina...

Ospitaleko aparkalekua handituko nuke lehenengo eta behin.

New Yorkera joango nintzateke gustura, joan izan direnek oso ondo hitz egin didatelako beti.

Oporretara nora joango zinateke gustura?

Benidormera. Haraxe joaten gara urtero eta oso pozik gainera. Zoragarri pasatzen dugu.

Realean jokatu nahiko nuke, bere garaian aitak jokatu zuen bezala. Hori da nire ametsa.

Zerekin egiten duzu amets?

Osasunarekin. Neuk eta neure familiak osasun ona izan dezagula eskatzen dut beti.

Lagunekin jolastea gustatzen zait, baina gustatzen zaidana futbolean jokatzea da.

Zein duzu/zenuen jolasik gustukoena?

Tortolosestan ibiltzen ginen gu beti Azkoitian. Zer den badakizu, ezta?

Galdezka. Aittitta-amamek kezka bakarra dute, nireek behintzat: ondo ote gauden.

Gaur egungo gazteak/adinekoak beti dabilta...

Gaur egungo gazteak telefonoari edo tabletari begira ikusten ditut nik beti. Ikaragarria da.

Ez dakit ba. Ezer berezirik ez. Egin daitekeena egiten dut egun argiz.

Egun argiz egin ezin duzun zer egingo zenuke ilunpetan?

Lo.

Jendea oso obsesionatuta dagoela diru asko egitearekin. Hori da dagoen txarrena.

Zein da munduan dagoen arazorik handiena?

Inbidia da munduan daukagun gaitzik handiena, besteak ondo ikusi ezina.

Ez. Mendaron ondo bizi gara, denok ezagutzen dugulako elkar. Tamaina ona Donostiak dauka, baina.

Herri txiki, infernu handi?

Ni neu gustura bizi naiz hemen. Izatez azkoitiarra naiz, eta 46 urte daramatzat hemen, gustura.

“Idatzizko formatuaz gain, edukiak bideo eta audioetan landuko ditu ‘Ttap’-ek”

▶ **MONIKA BELASTEGI** ‘TTAP’ ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Uztailean ‘Ttap’ aldizkari multimedia aurkeztu ondoren, joan den ostiraletan kale-ratu zuten lehen zenbakia. Gailu mugikorretarako astekaria ostiraletan kaleratuko dute, eta aktualitateko gaiak landuko ditu gertuko ikuspegi batetik. Monika Belastegi ‘Ttap’-eko zuzendariak aldizkariaren gaineko azalpenak eman dizkigu jaso aurretik ezagutzeko.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



♦ Zer da ‘Ttap’?

Euskarazko doako aldizkari digital multimedia da. Ostiraletako maiztasuna izango du eta eskuko telefono eta tablete-tatik irakurri, ukitu, ikusi eta entzun daiteke. Izaera moderno eta multimedia dela-eta, edukiak idatzizko formatuaz gain, bideo eta audio formatuan ere landuko ditu erabiltzaileari esperientzia atsegin eta interes-garria egiteko asmoarekin. Erabiltzaileak erabakiko du une bakoitzean nola disfrutatu. Gaur egun, gailu eramangarriak gure bizitzetan erabat sartuta daude; beti daramagu mugikorra aldean. Informazioa kontsumitzeko ohituretan ere eragin dute eta hedabideak sasoi berrietara egokitu nahian sortu dugu *Ttap* eta euskaraz falta zelako horrelako produktu bat. Gazteak bai ala bai gailu hauetan daude eta bereziki gazteak ditugu aintzat produktu honen, baina gaztearen definizio malguarekin.

♦ Nondik sortu da egitasmoa?

Bultzatzaileak hainbat hedabide gara. Tokikomen baitako, Durangaldeako Anboto, Zumaiako Baleike eta Debagoieneko Goiena eta Bartzelonako Esguard izeneko aldizkariak ere gurekin batera dihardu proiektu berri honetan. Proiektu

honen aurretik ere bagenuen kontaktua Katalanekin. Esguard aldizkari digital multimedia da eta 6 urteko ibilbide oparoa dauka Katalunian. Publikoak oso ondo erantzun dio han formatu berri honi eta guk, euren esperientzia baliatu nahi izan dugu *Ttap*-en elkarlanean.

♦ Zein eduki izango ditu ‘Ttap’-ek?

Gaurkotasuneko gaiak landuko ditu, baina ez derrigor eguneroko notiziari lotutakoak. Batez ere, inguru urbanoan eta garraio publikoan, autobusean, metroan... kontsumitzeko moduko aldizkaria da, telefonoa poltsikoan dutela hara eta hona dabilzantzat. Aldizkariak 16 orrialde edo pantaila izango ditu eta ordu laurden batean irakurtzeko modukoa izango da. 16 pantaila diot, baina lehen zenbakiak, esaterako, 400 interakzio posibletik gora ditu. Horrela, edukietan sakondu nahi duenak, beti izango du aukera, mimo handiz landutako audio eta bideo piezen bidez.

Bestetik atalka banatuta egongo da

eta elkarriketa nagusi eta iritzi zutabeekin batera, zinema proposamenak, liburu gomendioak, moda, teknologia, bidaiak... moduko gaiak landuko ditu. Zutabegileen kasuan Euskal Herrian izena duten firma onak dira. Esaterako, Pilar Kaltzada. Arantxa Urretabizkaia, Joseba Sarrionandia, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga, Ander Izagirre, Izaro abeslaria eta beste hainbat.

♦ Nola jaso eta ikusi daiteke?

Apple Store edo Google Play-ra jo eta *ttop* aldizkaria aplikazioa jaitsi besterik ez da egin behar eta www.ttap.eus-etik ere jaitsi daiteke.

♦ Lehenengo zenbakiak zein erantzun jaso du?

Oso ona eta oso pozik gaude, sare sozialetan ere mezu baikor asko irakurri ahal izan ditugu. Orain mailari eutsi eta erabiltzaileek *ttop* -ingelesez mugikorreko pantaila ukitzeari tap esaten diote eta euskarazko bustidura gehituta ipini diogu *Ttap* izena- egiten jarraitzeko gogor lan egitea tokatzen da.

'Oroitzen naizeino' eta 'Ikasgaia' antzezlanak ikusteko aukera izango da asteburuan Mendaron

Antzerkiak hartuko du asteburu honetako kultur eskaintza Mendaron. Bi antzezlan izango dira zapatuan eta domekan. Larunbatean, irailaren 29an, *Oroitzen naizeino* irakurketa taularatua eta musikatua egingo dute Maddi Zubeldiak eta Bernadette Lurok, 19:00etan udaletxeko udalbatza aretoan. Zahartzaroaz eta alzheimer gaixotasunaz ariko dira. Pertsonaia nagusi bat zahar etxean egongo da eta bere gogoetak eta oroitzenak kontatuko ditu. Beste pertsonaia bat ere arituko da, memoria, emakumea hitzik gabe geratzen denean erreleboa hartuko diona. Testuak eta musikak Agurtzane Anduetzaren bideo bat izango dute lagun.

Igandean, berriz, Elgoibarko Taupada taldeak *Ikasgaia* lana eskainiko du San Agustin kulturgunean, 18:00etan. Irakasle baten iluntasunak eta ikasle gazte baten argitasunak bat egingo dute obran. Jon Olivares izango da irakaslea, eta Sara Iriondo ikaslea. Obra dramatikoak da, baina umore absurdoarekin jolastuz txisteak ere sartzen dituzte, beraz, taldekoen esanetan ikusleak berdin egin dezake barre edo negar.



Larunbatean izango da udaletxean 'Oroitzen naizeino' lana.

Bestalde, datorren urriaren 21ean, Memoriaren Ganbaratik dokumentala emango dute San Agustinen, 18:00etan. Frankistak Elgoibarren sartu ziren 80. urteurrenaren harira orduko pasarteak antzeztu zituzten herritarrek eta errekreazio hori da Mendaron ikusi ahal izango dena.

Donostiako zinemaldian aurkeztu duten 'Gallo' filman hartu du parte Jon Mujikak

Aitor Francesena surflari itsu zarauztarraren egunerokoa kontatzen du Donostiako zinemaldian aurkeztu berri duten *Gallo* dokumentalak. Filmeko hainbat iruditan Jon Mujika elgoibartarra agertzen da. Surfean ibiltzen da Mujika eta entrenatzaile du Francesena. Berarekin entrenatzera ahal duen asteburu guzietan joaten da, eta filmaren aurkezpenean ere ez zuen hutsik egin. Asko gustatu zaiola esan digu. Itsua da Francesena gaixotasun eta istripu banaren ondorioz eta zalantzak eta beldurrak gairatuz desgaitasuna dutenek edozein erronkari aurre egin diezaioketela erakutsi nahi du filmarekin. "Eskola batzuetan entrenatzaileak momentuan zuzentzen ditu akatsak, baina nire irakasleak geure akatsak geuk antzematen erakusten digu". Filman erakusten ere saiatu dira.

Sotoko Hotsak eta Gararock-ek musikaz gozatuarazi zituzten zaleak



Musikaz bete zituzten bazterrak joan zen asteburuan Sotoko Hotsak ekimenaren eta Gararock jaialdiaren antolatzaileek. Ostiral gaua, Kultur Etxeko sotoan aritu zen Ainara Legardon, eta larunbat eguerdian, The Broken Brothes Brass Banda. Saio bakoitzean 60 lagunek bete zuten txokoa. Larunbat arratsaldean Mendaroko Garagartza auzoak hartu zuen lekukoa. Antolatzaileen esanetan helburuak gainditu ditu aurtengoak. Askotariko jendea musikaz eta giroaz gozaten ikustek izugarri bete dituela nabarmendu dute eta eskerrak eman dizkiete entzuleei eta baita gonbidatutako talde guztiei ere. "Zaila izango da errepikatzea", gehitu dute.



Jaime Santos gailendu da estreinako Nazioarteko Danobat Irekian

Nazioarteko Danobat Irekian parte hartu duten 66 xakelarien artean elo puntuazio altuena, -2574 elo puntuatuen xakelariak irabazi zuen lehen edizioko txapela, Jaime Santos Latasa Leongo xakelariak. Maisu Handi titulua du 22 urteko xakelari gazteak. Espainiako txapelkun izana den David Lariño galiziarra sailkatu zen bigarren postuan, Enrique Tejedorrek egin zuen hirugarren, belgikar nazionalitatea eta ukrainiar jatorria duen Vadim Malakhatko sailkatu zen laugarren postuan eta Gabriel Del Riorrentzat izan zen bosgarren postua. Txapelketak izan duen mailaren berri ematen du egungo Espainiako txapelkuna bosgarren postuan sailkatu izanak. Zubi Ondo Xake taldeko kideek azaldu dutenez, parte hartu duten lagunak gustura aritu



ziren txapelketak irauin zuen bi egunetan eta aukeratu duten kokaletak nabarmendu zieten gehienek. "Asmaola eraikineko gelak xake txapelketa bat jokatzeko oso egokiak direla iruditu zaie askori eta halaxe esan digute, oso gustura aritu direla hemen".

Iker Calvo saritu dute Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren Galan



Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren Gala ospatu zuten asteburuan Ordi-ziako Herri Antzokian. 2017-2018 denboraldian nabarmendu diren igerilariak saritu zituzten. Eibar Igerixan Klub igeri taldean diharduen Iker Calvo Villalobosek (Elgoibar, 2006) bere adineko igerilari osoenaren saria jaso zuen. Lidon Muñoz (Espainiako 50 eta 100 metro libretako Esainiako errekorren jabea) eta Jessica Vall (2017an Europako txapelkuna 200 metro bularrean) igerilariak banatu zituzten sariak. Xabier Infante, Txema Zumarraga eta Javier de Aymerich entrenatzaileak ere omendu zituzten, urteetan egin duten lanagatik.

Iban Murua nagusi Beriaingo kilometro bertikalean, baina Euskal Herriko titulurik gabe

Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala mendi lasterketaren 10. ekitaldia jokatatu zuten 252 korrikalarik, domekan, Sakanako haranean. Proba Euskal Herriko Bertikalen Txapelketa ere bazen. Antxitxikiariak Uharte Arakilgo frontoitik (471 m) irten ziren eta Beriaingo San Donato ermitaraino (1.494 m) igo. Bost kilometroko proba motza baina intentsitate handikoa da, 1.023 metroko desnibela gainditzen dutelako. Iban Murua Rodrigok 40 minutu eta 37 segundotan osatu zuen ibilbidea. Minutu bat eta 26 segundoko aldea atera zion bigarren egin zuen Joseba Diaz azkoitiarrari eta bi minutu gutxi gorakoa hirugarren egin zuen Iñigo Alzola arrasatearrari. Garaipena lortu arren, Euskal Herriko titulurik gabe gelditu zen Murua, federatu gabe dagoelako. Emakumezkoetan seigarren egin zuen Ainhoa Lendinezek (56:59), baina Euskal Herriko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen.



200 laguneko tropela batu zuen Elgoibar 2 Erroberatan bizikleta irteerak



Bi erroberen gainean ibiltzeko eguraldi ederra izan zuten domeka goizean Elgoibar 2 Erroberatan bizikleta irteeran parte hartu zuten lagunak, 200 bat inguru antolatzaileren esanetan. Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen du, eta 14. edizioa izan da aurtengoa. Herriko kaleetatik barrena itzuli bat eman eta gero Sallobente-Ermuaran alderantz abiatu zen tropela. Sallobenten atsedean labur bat hartu ostean, Kalegoenera itzuli ziren berriro. Plazan jan-edana banatu zieten antolatzailerek eta Euskaraldiaren aldeko argazkia ere atera zuten. Argazkiak eta bideoa: barren.eus



June Loidi eta Julen Urruzola Espainiako eskubaloi selekzioaren deialdietan

June Loidik jubenil mailako Munduko Eskubaloi txapelketa jokatu zuen, abuztuan, Polonian. Espainiako taldeak zortzigarren postuan amaitu zuen Munduko txapelketa. Orain, senior emakumezkoen taldeko hautatzailearen deia jaso du jokalaria elgoibartarrak. 2021ean Espainian jokatuko den Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatzeak aukerak izan ditzaketen jokalaria gazteekin lan egin nahi du Carlos Viverrek, eta hamasei jokalaria deitu zituen Madrilgo Pinto herrian, irailaren 16tik 20ra, egin zuten kontzentrazioan parte hartzera. Sanloko jokalaria Julen Urruzolak, berriz, federazioak Sierra Nevadako errendimendu altuko zentroan antolatu duen kontzentrazioan hartu du parte, 2002 eta 2003. urteetan jaiotako beste 70 jokalarirekin batera.

Zumaiako berezitasun geologikoak ezagutzeko irteera

Inguruko natura eta ondarea ezagutzeko zikloaren barruan, Zumaiako itsaslabarretako geologiak dituen berezitasunak ezagutzeko irteera antolatu du Morkaiko urriaren 6rako. Inma Muguerza geologo elgoibartarra izango da irteerako gidaria eta trenez joango dira Zumaiara (9:20). Interesatuek telefonoz (636 994 798) edo e-postaz eman dezakete izena (morkaiko@morkaiko.eus).

Arkaitz eta Leire Egaña neba-arrebak gailendu ziren Debabarreneko Ehiza Xehe Txapelketan

Zambranako (Araba) *El Castillo* ehiza barrutian jokatu zuten 2018ko Debabarrenako Ehiza Xehe Txapelketa, irailaren 23an. Martxoan jokatu zen Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketan gertatu zenaren antzera, txapel guztiak etxera eramateko gutxi falta izan zitzaiein oraingoan ere egañatarrei. Izan ere, senior gizonzkoen mailan Arkaitz Egaña gailendu zen.



Birritan Espainiako txapeldun izan den ehiztari elgoibartarrak 9 eper, faisai bat eta galeper bat ehizatuta irabazi zuen Debabarreneko txapelketa. *Lar*-ekin lehiatu zen, ingeles setter arrazako lau urteko txakurrarekin. Iñigo Gisasola sailkatu zen bigarren, 5 eper ehizatuta; eta, beste elgoibartar bat, David Conde, sailkatu zen hirugarren postuan, 3 eper eta faisai bat ehizatuta. Condek irabazi zuen, hain justu ere, Elgoibarko txapelketa martxoan, eta bigarren egin zuen Arkaitz Egañak. Emakumezkoetan Leire Egaña gailendu zen, *Bat* txakurrarekin hiru eper ehizatuta. Egungo Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna da Leire Egaña eta ehiza-ibilbide modalitatean ere berak irabazi zuen Euskadiko txapelketa, uztailan. Ehiztari beteranoen artean Mauro Gonzalez izan zen onena (7 eper) eta Joxe Mari Egaña sailkatu zen bigarren postuan (3 eper).

LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, orduka eta gauak pasatzeko ere prest nago.

☎ 631 891 709

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest.

☎ 651 479 142

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Etxeko lanak ere egingo nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest.

☎ 631 756 284

Adinekoak zainduko nituzke. Erreferentziak ditut eta berehala asteko prest nago.

☎ 680 103 356

Adinekoak edo umeak zaintzen zein etxeko garbiketetan egingo nuke lan.

☎ 643 158 766

Umeak arratsaldeetan zaintzen lan egiteko prest. Elgoibartarra eta euskalduna naiz.

☎ 687 114 707

Adinekoak zaintzen edo garbiketetan lan egiteko prest. Orduka.

☎ 602 625 718

Adinekoak edo umeak zainduz edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko prest.

☎ 602 047 812

Etxeak , fatxadak... margotzeko prest. Margolari lanetan esperientzia handia daukat. ☎ 600 202 516

Atariak eta etxeak garbitzen zein adinekoak zaintzen lan egiteko prest.

☎ 631 790 555

Pertsona euskalduna prest adinekoak edo gaixokoak zaintzen lan egiteko.

☎ 617 571 210

Pertsona arduratsua edozein lan egiteko prest. Etxeko langile modura zein orduka ere aritzeko gertu. ☎ 643 413 526

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 612 222 362

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke arratsaldez. Erreferentziak daukat.

☎ 646 821 678

Eskaintzak

Elgoibarko taberna batek euskaraz hitz egiten duen esperientziadun zerbitzaria behar du. ☎ 649 963 892

Asteburuetan adinekoak zaintzeko pertsona euskalduna behar da.

☎ 615 006 733

Nagusi bat zainduko duen eta etxeko langile moduan aritzeko prest dagoen pertsona baten bila gabilza.

☎ 653 863 482

Elgoibarko denda baten lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculum: elgoibardenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza bila ari naiz Elgoibarren. Hiru logelakoa eta ekonomikoa.

☎ 632 839 617

Santa Ana kalean etxebizitza salgai. 3 logela, trastelekua, garajea eta igogailua ditu. Oso argitsua da.

☎ 688 607 655

Elgoibarko enpresa batean praktikan nagoen gazte bat naiz eta logela eta dutxa hartuko nituzke alokairuan 3 hila-beterako. ☎ 669 379 268

GARAJEAK.....

Garajea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Elgoibarko erdigunetik gertu eta furgonetarentzako nahikoa altuerarekin.

☎ 688 697 340

BESTELAKOAK.....

Urrezko eraztuna galdu nuen. Nire familiararen armarrria dauka. Aurkitu duenak laga faborez Udaltzaingean.

IBILGAILUAK.....

Zortzi metroko belauntzia Zumaian, Furia 25 , salgai edo Camper furgoneta baten truke. ☎ 688 851 581

KINTA OSPAKIZUNAK.....

1948an jaiotako elgoibartarrek ospakizuna egingo dute urriaren 6an. Hitzordua: 12:00etan, Kalegoen plazan. Interesdunek 65 euro sartu urriaren 4a baino lehen Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: ES383035000723 0071132820. Kontzeptua: 1948an jaiotakoak.

1980an elgoibarren jaio edo eta hemen bizi direnen kinto ospakizuna egingo dugu urriaren 27an. Izena eman nahi dutenek urriaren 13a baino lehen Laboral Kutxako ES62 3035 0007 26 0071135636 kontuan 60 euro ingre-satu beharko dituzte. Animatu!

Aurten 50 urte beteko dituzten mendarorrek kinto bazkaria egingo dute urriaren 13an. 13:00etan hitzordua Aitzbeltzen. 14:00etan talde-argazkia Trinitate plazan. Bazkaria Landa erretegia 15:00etan. Interesatuak 90 euro sartu behar dituzte ondorengo kontu korronte honetan, izena eta abizena zehaztuta: ES37 2095 5054 0091 1830 7987. Izena emateko azken eguna: urriak 5.

ESKOLA PARTIKULARRAK.....**Eman**

Arabiera eta frantsesa irakasteko eskola partikularrak emateko prest Mendaron. ☎ 660 831 033 edo 620 665 224

Gitarra elektriko klase partikularrak ematen dira. Ume eta helduentzat. Gitarra elektrikoan eta magisteriari garrantzua. Esperientziarekin.

☎ 688 718 170

Akademia batean, maila guztietan ingeles eskolak emango litzuzkeen pertsona baten bila gabilza. Interesatuak bidali curriculum: ikasgoakademia@gmail.com

Jaso

DBH2 mailako eskola partikularrak euskaraz emango litzuzkeen pertsona baten bila gabilza. ☎ 617 386 198

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
 Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Lanaraberiaren Kontseilua



ROSA Mª
PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679


rosapf@telefonica.net

Txalet-urbanizazio batean bizi naiz. Normalean bertan bizi diren hiru jabe salbu, gainontzeko guztiak udako oporretan egoten gara han. Kasualitatez, udan joaten garen guztiok herri berean bizi gara. Bilerak udan egiten ditugu, urbanizazioko lokalean, gehiengoa han gaudela aprobetxatuz. Ohiz kanpoko batzar bat egin behar dugu eta nahiago dugu jabeen gehiengoa bizi garen herrian egitea. Jakin nahi nuke ea alda dezakegun bilera-lekua txaletak ditugun herritik jabeen gehiengoa normalean bizi garen herrira.

Legeak ez du zehazten jabeen batzarrak non egin behar diren. Baina deialdian adierazi behar da bilera non egingo den gainontzeko nahitaezko datuekin batera.

Bilera antolatzen duenak aukera dezake urbanizazioa ez dagoen beste herri batean egitea batzarra. Hala ere, horrelako kasu guztietan bezala, arau arrazionaltasunez eta interes komunaren arabera interpretatu beharko da. Hau da, jokabide horiek ez daitezke izan beste etxejabe batzuen kalterako.

Aholkua: Bilera, ezinbesteko arrazoirik gabe, etxebizitzak dauden lekutik hurrun egitea erabakiz gero, erabakiak ez luke babesik jasoko legea interpretatzerakoan hutsuneak egon arren.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Manex**, atzozure urtebetetzea izan zelako. Egun ederra pasatu genuen zurekin. 11 belarri tirakada Unai eta Xabaten partez bereziki.




Zorionak, **Elur!** Domekan 2 urte-txo. Patxo pila bat etxe-kuon partez eta haundixenak Elene eta Peruren partez.




Zorionak, **Eider!** 11 urte! Segi beti alai! Etxeko guztien eta bereziki Jonen partez.



Zorionak, **Elene**, atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez.




Andresi eta Enrique, iritsi da eguna. Gaur zuen ezkontzaren 50. urteurrena ospatuko dugu! Zorionak, bihoitz-bihoitzez, etxe-kuon partez.




Ion eta Mireia, larunbatean zuen ezkontza eguna!. Egun ona pasa, eta etxe-kuon partez, zorionak eta ahalik eta gehien goza. Muxu handi bana!



Zorionak, **Naroa eta Izar**. Aste honetan 8 eta 7 urte bete dituzue. Muxu asko familikoaren partez.



Zorionak, **bikote**, iritsi da egun handia! Primeran pasatzeko prest gaudel! Familiakoaren eta lagunuen partez.



Zorionak, **David eta Natalia!** Biharkoa egun oso zorionsua izatea opa dizuegu. Guztiok primeran pasako dugu. Muxu pila bat lagunuen partez!



Zorionak, **bikote**. Iritsi da egun handia! Oso ondo pasatuko dugu kuadrillan!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



IKASBAI akademia

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA


ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK





**Ez da soinu kalitatea bakarrik;
bizi-kalitatea ere bada**

28 BARIKAKUA

17:30 Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

18:30 Erakusketa: *Emeek emana*. Ordutegia: astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Irailaren 29ra arte. Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzaileak: Elgoibar 1936 eta Intxorta 1937 Kultur Elkartea.

18:30-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteko lokalean (Anbulatorio ondoan).

29 ZAPATUA

Hilabete bukaerako nekazaritza eta abeltzaintza feria.

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Pintxo salmenta. CD Elgoibarrak. Kalebarren plazan.

12:00 Pizza tailerra haur eta gazteenzat. Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantarien kalejira Kalebarren plazan hasita.

Eguerditik arratsaldera Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

19:00 Irakurketa taularatua eta musikatua: *Oroitzen naizeno*. Maddi Zubeldia. Mendaroko udaletxeko, pleno aretoan.

30 DOMEKA

18:00 Antzerkia: *Ikasgaia*. Taupada. Mendaroko San Agustin kultur gunean.

5 BARIKAKUA

18:30-20:30 Erakusketa: Mertxe Sueskun eskultorea. Astelehenetik larunbatera, 18:30etik 20:30era. Urriaren 20ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Kultura Saila.


21:30 Bideo Foruma: *Las vidas de Grace*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.



Antonio Gurrutxaga Askasibar

2018ko irailaren 23an hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Gizon jatorra eta nekazina izan zara azken unera arte; betiko izango zaitugu gure bihotzean. Maite zaitugu.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
28 BARIKAKUA	29 ZAPATUA	30 DOMEKA	1 ASTELEHENA	2 MARTITZENA	3 EGUAZTENA	4 EGUENA	5 BARIKAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Etxeberria	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

AIASTIAKO SAN MIGEL JAIK

Irailak 28, 29 eta 30

28, BARIKAKUA

19:30 Jaien hasiera. Kanpai jotzea.
21:00 Haritz EDTren ekitaldia
Borja Uzuriagaren omenez.
22:30 Gazte afaria.
Ondoren, Erromeria, Fan&Go taldearekin.

29, ZAPATUA

San Migel eguna

11:00 Meza.
Ondoren, 'Ziarda' eta 'Mañukorta' bertsolarien saioa.
Jarraian, Pilota partida.

14:30 Bazkaria.

Bazkalostean, Saioa eta Maialen trikitilariak.
Ondoren, Umeentzako parkea.
18:00 Bolo txapelketa. Sariak:
1. 100 € eta txapela.
2. 70 €.
3. 50 €.
4. 30 €.
5. Sorpresa.
Lehen auzotarrantzat garaikurra.
21:00 Bertso afaria. Bertsolariak:
Jone Uria eta Nerea Ibarzabal.
Gero, Erromeria. Obaneuke taldea.

30, DOMEKA

11:00 Meza.
Jarraian, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.
12:00 San Migeleko XII. Artzain Txakur Txapelketa.
Euskal Herriko arraza libreko finala.
14:30 Bazkaria.
17:00 Idi-demak: Oriden, Zubiondo eta Isidro Erretegia. Sariak:
1.saria: 900 €, garaikurra eta mantak.
2.saria: 800 € eta garaikurra.
3.saria: 700 € eta garaikurra.
Ondoren, Baltzola eta Andonegi trikitilariak.

Zinea (Herriko Antzokian)

'Florida project'

28 Barixakua 21:30



'El repostero de Berlín'

29 Zapatua, 19:00/22:15 (VOS)
30 Domeka, 19:00
1 Astelehena 21:30



'Caras y lugares'

4 Eguena, 21:30



'Yucatán'

5 Barixakua, 21:30
6 Zapatua, 19:00/22:15
7 Domeka, 19:00
8 Astelehena 21:30





Santa Klara auzorako bidean, Txankakua zubia pasatuta, ateratako argazkia da honako hau. Atxorbea jatetxea zegoen han aldamenean, eta argazkia laga digun Ana Mari Lasak hango senide baten umeak zaintzen zituen garai hartan. Kopeta luzeekin ageri da bera erretratuan, eta zaintzaile izan arren, ez du argazkiko beste batzuek bezala uniformerik soinean. Uniformearekin ageri den horietako bat Atxorbea jatetxeko zerbitzaria zen, eta argazkiko ume batzuen zaintzailea bestea. Berekin argazkian ageri direnak, berriz, lagunak. Umeak elkarren senide izanik sarri elkartzen ziren eta zaintzaileak eta lagunak elkartu ziren batean atera zuten argazki hau. Hona bada zein ziren sarritan elkarrekin ibiltzen ziren lagun-taldeko nesken eta haietako batzuek zaintzen zituzten umeen izenak: **Ezkerretik eskumara:** Begoña Sorazu, Merche Iribarren, Elena Zabala, Maria Isabel Bustos (besotan duen umea), Maria Jesus Kortaberria, Ana Mari Lasa, Teo Uriarte (besotan duen umea), M. Carmen Zubizarreta, Puri Juaristi, Mari Tere Laskurain, Visi Iranzo, Jose Enrique Bustos (Besotan duen umea, Maria Luisa Galdos eta Edurne Lasa. **Makurtuta:** Teresi Uriarte.

Urretxu-Zumarraga ikastolen alde
"Zubiak batuz"

KILOMETROAK 2018 Urriak 7, igandea

Autobusa antolatuta dugu Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko. Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da. **Azken eguna: urriak 4.**



Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia)

Itzulera: 20:00

Prezioa: 8 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7)



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ongi iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxe: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 807 755 062
iturgintzalellabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROSZTEGIAK

Aroztegia Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

BIENA S.L.
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@bicna.eus

MAR
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

iparelek S.L.
elektrizitatea

Kiliman hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSERITZA

A.Garate
Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

I.E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com



STOCK FERIA

ELGOIBAR

URRIAK 6, LARUNBATA
10:00ETATIK - 14:30ERA
MAHALAKO PARKEA

PARTE-HARTZEKO ETA INFORMAZIO GEHIAGO EDUKITZEKO DEITU 945747501

